

# Hankarin bat ikusi ahal izan dute ornitologoek Lindusen

Lindusen behatzen ari diren ornitologoek jakinarazi dutenez, ez da batere ohikoa hankarina bertatik igarotzea

**Naiara Elola** Iruñea

Hegaztien migrazio aroa dela probestuta, ornitologo zein zale andana dabil Nafarroako geografia osoan zehar animalia horiek behatzen. Horretarako gune aproposa da Aurizko Lindus parajea. Hala, Gorka Gorospe ornitologoak jakinarazi duenez, Lindustik

igarotzea batere ohikoa ez den arren, hankarin bat ikusteko parada izan zuen iragan irailaren 23an.

Arratsaldeko seiak ziren, eta Gorospe Sara Sanchez eta Fael Foilleret ornitologoekin batera hegazti migrazioa prismatikoen laguntzaz ikusten ari zela, ezohiko zerbait ikusten ari zela ohartu zen. Hiru adiskideak Tronako gainean zeuden, eta, bat-batean, handik hamar metro ingurura ikusi ahal izan zuen hankarina. «Hegaztia oinez zebilen, jarrera bitxia zuen, segituan jakin genuen zein hegazti mota zen», adierazi du Gorospek.



Lehen aldia da hankarin saharar bati Lindusko eremuan argazkia ateratzen diotena. GORKA GOROSPE

Adituak jakinarazi duenez, txoria ikusi bezain pronto identifikatu zuten hankarin (*Cursorius cursor*) moduan, hura identifikatzea «erraza» delako. Dena den, lehenengo harridura minutuak pasatu ostean, Gorospe, Sanchez eta Foilleret argazkiak ateratzen hasi ziren.

Antza, hegaztia intsektuak ja-

ten ari zen behi baten simaurretan. Horrez gain, zelaian lokartuta ere ikusteko parada izan zuten. Dena den, bat-batean, hegaldi txiki bat egin zuen Tronako gainaren beste txoko batera. «Hegaldiaren ostean janari bila hasi zen berriz ere; baina zelaian behera oinez hasi zen, eta bistatik galdu genuen», adierazi du Gorospek.

Dena den, hankarinaz gain, azken egunetan beste hegazti arraro bat, hau da, txirri pektoralak ikusteko aukera izan du Javier Sola ornitologoak, Zangozan. Argazkiak ateratzeko aukera izan du Solak, eta honako helbide honetan ikus daitezke: <http://avesricardo.blogspot.com/2011/09/rarezas-por-navarra.html>